



**Arartekoaren 2024IR-651-23 Ebazpena, 2024ko martxoaren 13koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko irakasle-lanpostu bat betetzeko izendapenari buruzko kexan bere jarduna amaitzen du.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek (...) kexa bat jarri zuen Arartekoan, irakasle izendatzeko egin zuen eskaerari dagokionez Hezkuntza Sailaren administrazio-isiltasunaren egoerari buruz.

Adierazi zuenez, eskaera horrek ez zuen erantzunik jaso, nahiz eta aurkeztu eta hiru hilabetera beste idazki bat erregistratu. Idazki horretan, erantzuteko edo, gutxienez, izapidetze-egoerari buruzko informazioa emateko eskatu zuen.

2. Arartekoa Hezkuntza Sailarekin harremanetan jarri zen gogorarazteko aztertu beharreko gaiak ebazteko legezko betebeharra duela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen<sup>4</sup> 21.1 artikuluan xedatutakoa betez. Halaber, gogorazi zion interesdunek eskubidea dutela beren asmoari buruzko berriazko ebazpen arrazoitua epe barruan jasotzeko, hartutako erabakia eragin duten argudioak ezagutzeko eta ordenamendu juridikoak ematen dizkien errekurso-bideak baliatu ahal izateko.

Era berean, erakunde honek informazioa eskatu zion kexagilearen eskaerari emango zion tratamendu arrazoituari buruz, eskaera horren ebazpenaren izapidetze-egoerari buruz, eta hartutako erabakia jasoko zuen dokumentua jakinarazteko kalkulaturako epeari buruz.

3. Hona hemen kexagilearen eskaeran planteatutako funtsezko auzia:

2022ko irailaren 21ean, irakasle lanpostu bat esleitu zioten ikastetxe batean, 2022ko abenduaren 7ra arte amatasun-bajan egongo zen beste pertsona bat ordeztzeko; beraz, egun horretan amaitu zitzaion ordezkapen-izendapena.

Era berean, lanpostuaren titularrak eskatu zuen abenduaren 12tik (astelehena) 2022ko abenduaren 23ra arte baja ematea, baina, dirudenez, baimen hori ez zen formalki onartu, eta, gainera, abenduaren 9a (ostirala) ez zen eskola-eguna izan zentro horretan.

---

<sup>4</sup> 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.



Izendapena amaitzean, kexagileak bere egoera "lanerako prest" egoerara aldatu zuen Ordeztagunea plataformaren bidez, eta lanpostuen esleipenean parte hartu zuen, abenduaren 9an. Egun horretan ez zen eskaini bete zuen eta berriz hutsik geratuko zen lanpostuaren ordezkapena, baina beste ikastetxe batzuetako hainbat lanpostu eskaini ziren, eta horietako bat esleitu zioten abenduaren 12tik aurrerako ondorioekin.

Araudian xedatutakoari jarraikiz, kexagilea ikastetxe berrira joan zen, esleitutako lanpostua eman zioten eta lanean hasi zen, baina, goizerdian, Hezkuntza Sailaren dei bat jaso zuen. Dei horretan, aurreko ikastetxean bete zuen lanpostura berehala eta nahitaez itzultzeko eskatu zitzaion; lanpostu hori, gorago azaldu dugun bezala, berriro libre zegoen titularra lanean ez zegoelako.

Kexagileak azaldutakoaren arabera, dei horretan adierazi zioten ez zuela egoera "lanerako prest" egoerara aldatu behar, baizik eta titularra lanpostuan ez egon arte itxaron egin behar zuela, eta astelehenean lanpostu horretara itzuli. Adierazi zuenez, elkarrizketa horretan esan zioten, halaber, hori izango zela Gabonetan jarduteko modua; hau da, 2022ko abenduaren 23an lan egitetik utziko zuela eta 2023ko urtarrilaren 9an berriro hasiko zela zerbitzu-harremana, lanpostuen esleipenetan parte hartzeko eta beste bat hautatu ahal izateko inolako aukerarik gabe.

Azkenik, kexagileak aurreko ikastetxeko lanpostura itzuli behar izan zuen, eta beraz ondorioz gabe geratu zen lanpostu berriaren esleipena; hala ere, ez dakigu jarduketa hori administrazio-berrikuspen formal baten ondorioz edo berriaz eta arrazoiak emanez baliogabetu zen.

Ondoren, eskaera bat aurkeztu zuen, eta erantzunik jaso ez zuenez, aipaturiko kexa jarri zuen. Kexa horretan, lehen ikastetxera itzultzeko erabakiaren aurka zegoela adierazi zuen, beste ikastetxean lortutako izendapena baliogabetuta, eta bere jarduna hautagaien zerrendaren kudeaketa arautzen duen araudian<sup>5</sup> oinarritu zuen.

Zehazki, araudi horren 36.1 artikulua aipatu zuen, zerrendaren funtzionamendu orokorrean salbuespen bat sartzen duena. Horren arabera, norbaitek pertsona bat ordeztu badu eta hamar eskola-egun igaro baino lehen pertsona hori berriz ordezkatu behar bada, aurreko ordezkapenaz arduratu zen pertsonak ordeztuko du, betiere ordezkatzeko moduan badago eta ikastetxeak hala eskatzen badu.

<sup>5</sup> *Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan dauden irakasle-beharrak aldi baterako betetzeko hautagaien zerrendaren kudeaketari buruzko araudia. Zerrenda hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 2012ko abuztuaren 27an emandako aginduaren bidez onetsi zen.*

Era berean, Gabonetan jarduteko modua zein izango zen formalki jakinarazteko eskatu zuen, bai eta zubiko egunak (abenduaren 7tik 12ra bitartekoak) kontuan hartzeko ere, ordainsariei zein merezimenduei dagokienez.

4. Hezkuntza Sailak erantzun-txosten bat idatzi zuen. Laburbilduz, honako hau adierazi zuen:

- Kargua utzi zuen egunean (abenduaren 7an), zentroko zuzendaritzak kexagileari jakinarazi zion titularrak abenduaren 12tik 23ra arteko amatasun-baimena eskatu zuela.
- Hautagaien zerrendaren kudeaketari buruzko araudiak salbuespen bat ezartzen du zerrendaren funtzionamendu orokorrean, ikasleen mesedetan irakaskuntzari jarraipena emateko. Gorago adierazitako artikulua aipatzen zen.
- Kexagileak bazekien egoera zein zen eta bazekien 2022ko abenduaren 12an berari zegokiola lanpostuaren titularra berriz ordezkatzea. Hala ere, abenduaren 9an beste ikastetxe batean abenduaren 12an lanean hasteko lanpostu bat eskatu zuen; hau da, aurreko ikastetxeko ordezkapena egitea zegokiola jakinarazi zitzaion eguna.
- Eskaerari modu formalean erantzun zitzaion, jakinarazpen baten bidez. Bertan jakinarazi zitzaion, urte horretan, baimena Gabonetan (abenduaren 24tik urtarrilaren 8ra) amaitzeko eta oporraldia amaituta berriro emateko eskatzen zuten titularren ordezkoek bi aukera zituztela: urtarrilaren 5eko esleipenean parte hartzea, hilaren 9an lanpostu berri batean hasteko, edo Gabonak baino lehen bete zuten ordezkapen-lanpostura itzultzea.
- Ez dagokio zubiko egunak ordainketa- eta merezimendu-ondorioetarako kontuan hartzea; izan ere, titularrak abenduaren 7an amaitu zuen amatasun-baimena, eta ez zuen baimena berriro emateko eskatu abenduaren 12ra arte. Beraz, aldi horretan ez zen ordezkapena justifikatzeko arrazoirik izan.



## Gogoetak

1. Hautagaien zerrendaren kudeaketari buruzko araudiaren 27. artikulua zehazten du zein egoeratan egon daitezkeen zerrenda osatzen duten pertsonak. Zehazki, honako hau aipatzen da:

*“Agindu honetan araututako hautagaien zerrendetan dauden pertsonak honako egoera hauetako batean egongo dira: lanean, lanerako prest edo aldi baterako bajaran.”*

Jarraian, 28. eta 29. artikuluetan, “lanean” eta “lanerako prest” egoerak deskribatzen dira. Honako hau aipatzen da:

*“28. artikulua. – Lanean.*

*«Lanean» egoeran daude hautagaien zerrendan dauden eta agindu honen aplikazio-eremuan zerbitzu ematen ari diren hautagaiak.*

*Pertsona bat lanean badago, egoera hori aplikatuko zaio dagoen zerrenda guztietan, eta, beraz, ez diote lan-eskaintzarik igorriko horietatik, 19. artikuluan aurreikusitako egoera gertatzen ez bada behintzat.*

*29. artikulua. – Lanerako prest.*

*«Lanerako prest» egoeran daude, eta, beraz, lan-eskaintzak jaso ahal izango dituzte, hautagaien zerrendan dauden eta agindu honen aplikazio-eremuan zerbitzu ematen ez dauden hautagaiak, aldi baterako baja-egoeran ez daudenak.”*

Horrela, auzia arautzen duen araudian xedatutakoari jarraituz, eta aldi baterako baja-egoera alde batera utzita (ez baitagokio kexa-espedita honi), zerrendan sartutako pertsona bat ager daitekeen egoera Hezkuntza Sailarekin duen zerbitzu-harremanaren mende dago.

Hala, dagokion izendapenaren ondorioz zerbitzuak ematen ari den unean, pertsona hori “lanean” dago; aldiz, lanpostua uzten duenean eta zerbitzuak ematen ari ez denean, berriz ere “lanerako prest” dago.

Ez dago, beraz, tarteko beste egoerarik; horregatik, esan bezala, pertsona bi egoeratan egon daiteke: lanean, eta, ondorioz, ezin du lanpostuen esleipenetan parte hartu, edo lanerako prest eta lan-eskaintzak jaso ditzake.

Hala xedatzen du, halaber, araudi horren 42. artikulua:

*“1. – Zerbitzu emateari utziz gero, hautagaia «lanerako prest» egoeran jarriko da berehala dagoen zerrenda guztietan, eta izendatu edo kontratatu zutenean zuen puntuazio bera izango du, urteko birbarematze-prozesu bat egin ez bada behintzat; egin bada, zerrendak aztertu eta prozesu horretan ateratako emaitzak aplikatuko dira.*

*2.- Hautagaiak ordezkapena amaitutakoan, dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzari jakinarazi beharko dio. Idatziz jakinarazi beharko dio derrigorrean, beste bide batzuetatik ere jakinarazten badio ere.”*

Artikulu horren 2. atalean aipatzen den jakinarazteko betebeharra berrespen-betekizun formal baina ez da, langileen zerbitzuek ordezkapenaren amaieraren berri zuzenean eta bizkor izateko eta interesdunaren lanbide-egoera aldatu ahal izateko, beste lanpostu batzuetarako dei egiteko aukera izateko. Gaur egun, jakinarazpen horren ordezkari, interesdunak berak aldatzen ditu bere datu profesionalak, Ordezkagunea plataformaren bidez.

Nolanahi ere, erakunde honek puntu honetan nabarmendu nahi duena zera da: baldintza formal hori alde batera utzita, “lanerako prest” egoera automatikoki ezartzen da pertsona batek bere zerbitzu-harremana amaitzen duenean.

2. Kexagileak 2022ko abenduaren 7an bukatu zuen lanpostuan lan egitetik, eta, beraz, une horretatik aurrera, lanerako prest egoeran zegoen, araudi erregulatzailerak berariaz xedatzen duenari jarraikiz.

Lanerako prest egoerak, adierazi dugun bezala, aukera ematen zion ordutik aurrera egin zitezkeen lanpostuen esleipenetan parte hartzeko eta bere interesekoak ziren lanpostuak lortzeko.

3. 36.1 artikuluan jasotako zerrendaren funtzionamendu orokorraren salbuespenak honela dio:

*“Pertsona batek ordezkapen bat egin badu, eta 10 irakastegun iragan baino lehen irakasle bera ordezkatu beharra sortzen bada eta ikastetxeak horrela jakinarazten badio dagokion lurralde-ordezkaritzari, arestiko ordezkapena egiten aritu zen hautagaiak egingo du ordezkapen hori, egiteko moduan badago.”*

Xedapen horren arabera, beraz, lanpostu baten titularra berriz ordezkatu behar den kasuetan, lehen ordezkapena egin zuen pertsona arduratuko da bigarren ordezkapen horretaz, betiere hamar eskola-egun igaro ez badira, ikastetxeak hala eskatzen badu eta pertsona hori lanerako prest badago; azkeneko baldintza hori, Arartekoaren iritziz, erabakigarria da.

Arauk berak xedatzen du pertsona lanerako prest ez egotea gerta litekeela eta, beraz, salbuespenean jasotako jarduteko modua ezin bete izatea; horrek argi uzten du beste lanpostu batzuen esleipenetan parte hartzeko eskubidea duela lehen ordezkapena bukatzen duen unetik aurrera.

4. Kexagileari jakinarazitako interpretazioarekin bat etorri eta, itxuraz, erakunde honek bidalitako lankidetzaz-erantzutako igorritako txostena berretsiz, Hezkuntza Sailak adierazi zuen abenduaren 7an lanpostua utzi ondoren abenduaren 12ra arte itxaron behar zuela berriro izendatzeko, eta ez zuela abenduaren 9ko esleipenetan parte hartu behar.

Erakunde honek ez daki arauan jasotako zein egoeratan egon beharko lukeen pertsona horrek egun horietan; izan ere, ez zegokion ez "lanean" egoeran egotea (ez zuen izendapenik, ez zuen zerbitzurik ematen eta denbora ez zitzaion ordainsari- edo merezimendu-ondorioetarako kontuan hartu), ez "lanerako prest" egoeran egotea (dirudienez, ezin zuen beste lanpostu bat bete, oraindik hasi gabeko ordezkapen bati lotuta zegoelako).

Erakunde honek ez du aurkitu horrelako egoera bat arautzen duen xedapenik, ez eta ordezkapen bat amaitzen duenak esleipenetan parte hartu gabe hamar eskola-egunera arte egoteko betebeharririk ezartzen duenik ere, lehen ordezkaturako pertsonak berriro baja hartuko balu ere.

5. Bestalde, kasu honetan, abenduaren 7tik 12ra bitartean lanegun bakarria egon zenez (abenduaren 9a), egun horretan egin ziren esleipenek ere abenduaren 12tik aurrera izan zituzten ondorioak.

Hala ere, erakunde honen zalantza zera da: zer gertatuko litzatekeen bitarteko egunak bi edo gehiago izan balira eta interesdunak abenduaren 12a baino lehen lanpostu bat lortu izan balu. Arartekoaren ustez, Hezkuntza Sailaren interpretazioa onartuz gero, lanegunak galduko lirateke, eta hori ez litzateke bateragarria izango zerrendaren kudeaketari buruzko araudiarekin; izan ere, araudi horrek ez du berariaz jasotzen lanegunak galtzea dakarten esleipenetan parte hartzeko eskubidearen murrizketarik, eta ez du ezartzen horrelako neurri bat hartzeko baldintzak edo modua.

6. Araudiak ere ez du ezartzen zer modutan jakinarazi behar zaien ikastetxearekiko aldi baterako lotura hori egoera horrek eragin diezaiekeen pertsonari.

Kasu honetan, interesdunari ordezkapena amaitu zuen egun berean jakinarazi zitzaion ordezkaturako pertsonak beste baimen bat eskatu zuela abenduaren 12tik 23ra, baina, kexagilearen esanetan, baimen hori ez zegoen ofizialki onartuta, eta, beraz, ez zegoen ezarrita baja benetan gertatuko zenik.

Era berean, adierazi zitzaien egoera Gabonetan errepikatuko zela; hau da, berriz ere ordezkapena amaituko zuela eta urtarrilaren 9ra arte itxaron beharko zuela lanpostu berera itzultzeko, beste bat lortzeko aukerarik gabe. [Geroago, Hezkuntza Sailak interpretazio hori aldatu zuen; izan ere, Gabonetan egoera horretan zeudenei 2023ko urtarrilaren 5eko esleipenean parte hartzeko aukera eman zien].

Nolanahi ere, erakunde honek uste du ikastetxeko zuzendaritzaren ahozko komunikazio soila, are gehiago aintzat hartuta zehaztu gabe egin zela, ez zela nahikoa izan interesa izan zezakeen lanpostuen esleipenean parte hartzeko eskubidea murrizteko, ezta murrizketa hori araudiari jarraiki posibletzat jo izan balitz ere.

7. Kexagileak 2022ko abenduaren 8tik abenduaren 11ra bitarteko egunak merezimendu- eta ordainsari-ondorioetarako kontuan hartzeko egindako eskaeraren harira, erakunde honek uste du, auziari buruz adierazitako guztia alde batera utzita, Hezkuntza Sailari ezin zaiola jarduketa hori egiteko eskatu.

Aintzat hartu beharrekoa da, hain zuzen ere, ordezkapena abenduaren 7an amaitu zela, titularra lanera itzuli zelako; beraz, aldi horretan izendapenik indarrean ez zegoenez, kexagileak ezin zuen ondoriorik jaso.

Era berean, abenduaren 9an beste ikastetxean esleitutako lanpostuak abenduaren 12tik aurrerako ondorioak izan zituen; beraz, ordainsari- eta merezimendu-ondorioak hasierako ikastetxera itzultzean aitortu zitzaizkion berberak izango ziren, eta, beraz, egoera berbera izango zen ondorio horiei dagokienez.

8. Azkenik, eta espediente honetan planteatutako auziaren alderdi tangenziala den arren, erakunde honek adierazi nahi du, kexagileak aipatu zigunez, Hezkuntza Sailean eskaera formal bat aurkeztu zuela, eta posta ziurtatu bidez eta Eusko Jaurlaritzaren erregistro elektronikoaren bidez igorri zuela.

Hala ere, eskaera horri emandako erantzuna Tramitagunea kanaletik bidalitako jakinarazpena izan zen, eskaera materialki ezesteko, urriaren 1eko 39/2015 Legearen<sup>6</sup> 88. artikuluan ezarritako baldintza formalak bete gabe.

---

<sup>6</sup> 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.



## Ondorioa

Hizpide darabilgun kexa aurreko gogoeten arabera aztertu ondoren, Hezkuntza Sailak bidali dituen ondoz ondoko idazkietan agertu duen jarrera kontuan harturik, eta une honetan kexaren xede den auziaren inguruko konponbide egokirik lortzea ezinezkoa dela ikusita, Arartekoak erabaki du bere esku-hartzeari amaiera ematea espedientearen, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen babesean, eta honako ondorio hauek formulatzea:

1. Kexagileak 2022ko abenduaren 7an bukatu zuen ordezkapena, eta, une horretatik aurrera, "lanerako prest" egoeran zegoen; beraz, ordutik aurrera egin zitezkeen lanpostuen esleipenetan parte hartu zezakeen.
2. Erakunde honek ez du aurkitu lanpostuen esleipenetan parte hartzeko "lanerako prest" dauden pertsonen eskubidea murrizten duen arau-xedapenik, edo ordezkapen bat amaitzen duena esleipen horietan parte hartu gabe hamar eskola-egunera arte egoteko betebeharririk ezartzen duenik, lehen ordezkaturako pertsonak berriro baja hartuko balu ere.
3. Kexagileak jaso zuen ahozko komunikazioa ez zen nahikoa izan interesa izan zezakeen lanpostuen esleipenean parte hartzeko eskubidea murrizteko, ezta murrizketa hori araudiari jarraiki posibletzat jo izan balitz ere.
4. Ez dugu uste Hezkuntza Sailaren jarduketak kalterik eragin duenik merezimendu-eta ordainsari-ondorioei dagokienez, kexagileak abenduaren 9ko esleipenean lortu zuen lanpostuan mantentzeak izango lituzkeen ondorioei dagokienez.
5. Kexagilearen eskaerari erantzuteko emandako jakinarazpenak materialki ezetsi zuen bere asmoa, administrazio-prozeduraren araudiak ezarritako baldintza formalak bete gabe.